

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 1333/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko abenduaren 16koa, elikagai-gehigarrei buruzkoa

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: *REGLAMENTO (CE) No 1333/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 16 de diciembre de 2008 sobre aditivos alimentarios (Diario Oficial de la Unión Europea, L 354/16, de 31.12.2008 )*

1333/2008 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 354/16 2008/12/31koa)

**1333/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA**

**2008ko abenduaren 16koa,**

**elikagai-gehigarriei buruzkoa**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki hartako 95. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute <sup>(1)</sup>.

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki <sup>(2)</sup>,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Elikagai seguru eta osasungarrien zirkulazio askea, barne-merkatuaren funtsezko elementua izateaz gain, oso garrantzitsua da herritarren osasun eta ongizaterako, bai eta haien gizarte- eta ekonomia-interesetarako ere.

(2) Erkidegoko politikak aplikatzean, babes-maila handia bermatu behar da pertsonen bizitzarako eta osasunerako.

(3) Erregelamendu honek elikagai-gehigarriei buruzko aurreko zuzentarau eta erabakiak ordeztu ditu. Gehigarri horiek elikagaietan erabil daitezke, barne-merkatuaren funtzionamendu eraginkorra bermatzeko eta, aldi berean, giza osasunaren eta kontsumitzaileen babes-maila handia dela bermatzeko, kontsumitzaileen interesen babesa barne, prozedura sakonaren eta sinplifikatuen bidez.

(4) Erregelamendu honen bidez, elikagai-gehigarrien erabilera harmonizatzen da Erkidego osoan. Harmonizazio horrek 89/398/EEE Zuzentarauan –1989ko maiatzaren 3koa, estatu kideetako legediak elikadura bereziko janariaren alorrean elkarri hurbiltzeari buruzkoa <sup>(3)</sup>– elikagai-gehigarriak janarietan erabiltzeari buruz araututakoa hartzen du, baita ere elikagai-koloratzaileen erabilera haragiaren osasun-markaketan eta arrautzen dekorazioan eta markaketan. Halaber, Erregelamendu honek harmonizatzen du elikagai-gehigarrien erabilera elikagai-gehigarrietan eta elikagai-entzimetan, haien segurtasuna eta kalitatea bermatzeko, bai eta biltegiatzea eta erabilera errazteko ere. Orain arte, ez zegoen horrelako araurik erkidego osorako.

(5) Elikagai-gehigarriak ez dira bere horretan kontsumitzen diren substantziak. Elikagaietan nahita gehitzen diren substantziak dira, Erregelamendu honetan deskribatutako helburu teknologietarako; esaterako, elikagaien kontserbaziorako. Komeni da elikagai-gehigarri guztiak Erregelamendu honen aplikazio-eremuan sartzea, eta kategoria funtzionalen zerrenda eguneratzea, zientzia-aurrerapenak eta teknika-eboluzioa gertatu ahala. Hala ere, ez dira elikagai-gehigarritzat jo behar lurrintzaile edo zaporetzaile gisa nahiz nutrizio-helburuz erabilitako substantziak; esaterako, gatzen ordezkioak, bitaminak eta mineralak). Halaber, ez dira sartu behar Erregelamendu honen aplikazio-eremuan elikagaitzat hartzen diren eta helburu teknologiko baterako erabil daitezkeen substantziak; esaterako, sodio kloruroa, elikagai-entzimak edo azafraia, baldin eta koloratzaile gisa erabiltzen bada. Nolanahi ere, Erregelamendu honen baitan, elikagaietatik eta natura-jatorriko bestelako materialetatik lortutako prestakinak gehigarritzat hartuko dira, janari bukatuan eragin teknologikoa izateko helburua badute eta haien nutrizio-osagaiak edo osagai lurrintsuak erauzketa selektiboaren bidez lortzen badira (esaterako, pigmentuak). Azkenik, elikagai-entzimak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1332/2008 (EE) Erregelamenduan –2008ko abenduaren 16koa, elikagai-entzimek buruzkoa <sup>(4)</sup>– arautzen dira, eta Erregelamendu honen aplikaziotik kanpo geratzen dira. (6) Elikagai gisa berez kontsumitu ez, baina elikagaiak eraldatzeko nahita erabili eta janari bukatuan hondar gisa inolako eragin teknologikorik izan gabe geratzen diren substantziak (laguntza prozesu edokoadiubante teknologikoak) ez dira arautu behar Erregelamendu honetan.

<sup>1</sup> C 168 EO, 2007-07-20koa, 34. or.

<sup>2</sup> Europako Parlamentuaren 2007ko uztailaren 10eko irizpena (AO C 175 E, 2008-07-10ekoa, 142. or.), Kontseiluaren 2008ko martxoaren 10eko Jarrera Bateratua (EO C 111 E, 2008-05-06koa, 10. or.), Europako Parlamentuaren 2008ko uztailaren 8ko Jarrera (ez da argitaratu oraindik Egunkari Ofizialean), eta Kontseiluak 2008ko azaroko 18an hartutako Erabakia.

<sup>3</sup> L 186 EO, 1989ko ekainaren 30ekoa, 27. or.

<sup>4</sup> Ikus Egunkari Ofizial honen 7. orrialdea.

## Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(7) Elikagai-gehigarriak baimendu eta erabiltzeko, ezinbestekoa izango da Erregelamendu honetan xedaturiko baldintzak betetzea. Elikagai-gehigarriak segurtasunez erabili behar dira, eta behar teknologikoren bat asetzeko. Halaber, gehigarriak kontsumitzailearen onurarako erabili behar dira, eta ez zaio hari oker pentsarazi behar. Ez zaio kontsumitzaileari oker pentsarazi behar alderdi hauekin eta beste batzuekin lotutako informazioa ematean: produktuaren izaera, freskotasun-maila, erabilitako osagaien kalitatea, produktua edo ekoizpen-prozesua naturala den ala ez, produktuaren nutrizio-kalitatea (zenbateko fruta- eta berdura-kantitatea duen barne). Elikagai-gehigarri baimena ematean, komeni da beste faktore batzuk ere kontuan hartzea; batez ere, faktore ekonomikoak, gizarte-faktoreak, tradizioekin lotutakoak, etika- eta ingurumen-faktoreak, zuhurtzia-printzipioa eta kontrolak egiteko bideragarritasuna. Elikagai-gehigarrien erabileran eta haien gehienezko mailak zehazterakoan, kontuan hartu behar da beste bide batzuetatik har daitekeena eta kontsumitzaileen zenbait talderentzat gehigarriaren eraginpean egoteak izan ditzakeen ondorioak (esaterako, kontsumitzaile alergia-dunak).

(8) Elikagai-gehigarriek onetsitako espezifikazioak bete behar dituzte. Espezifikazioek elikagai-gehigarria behar bezala identifikatzeko informazioa eman behar dute —batez ere, jatorria—, eta purutasun-baldintza onargarriak deskribatu. 95/31/EE Batzordearen Zuzentarauan –1995eko uztailaren 5ekoa, janarietan erabil daitezkeen edulkoratzaileen purutasun-baldintza espezifikoa xedatzeko<sup>(1)</sup>–; 95/45/EE Batzordearen Zuzentarauan –1995eko uztailaren 26koa, janarietan erabilitako koloratzaileen purutasun-baldintza espezifikoa xedatzeko<sup>(2)</sup>– eta 96/77/EE Batzordearen Zuzentarauan –1996ko abenduaren 2koa, koloratzaileez eta edulkoratzaileez besteko elikagai-gehigarrien purutasun-baldintza espezifikoa xedatzeko<sup>(3)</sup>– elikagai-gehigarri buruz xedatutako espezifikazioek indarrean jarraitu behar dute, dagozkien gehigarriak Erregelamendu honetako eranskinetan inskribatu arte. Une horretan, erregelamendu bidez zehaztu behar dira gehigarri horiei dagozkien espezifikazioak. Hain zuzen, Erregelamendu honen eranskinetan jasotako erkidego-zerrendetan adierazten diren gehigarrientzako espezifikazioak zehaztu behar dira. Hala ere, argitasunaren mesedetan, espezifikazioen ezaugarriak eta edukiak konplexuak direnez, komeni da ez sartzea besterik gabe aipatutako Erkidegoko zerrenda horietan, baizik eta erregelamendu baten edo batzuen bidez xedatzea.

(9) Baimena dago zenbait elikagai-gehigarri erabiltzeko enologia-jardunbide eta -prozesu jakin batzuetan. Elikagai-gehigarri horiek erabiltzean, Erregelamendu honetan eta Erkidegoko legeria egokian adierazitako xedapen espezifikoa bete behar dira.

(10) Harmonizazioa bermatzeko, arriskua zehazterakoan eta elikagai-gehigarri baimena ematerakoan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1331/2008 (EE) Erregelamenduari –2008ko abenduaren 16koa, elikagai-gehigarrien, -entzimen eta -aromen baimen-prozedura bateratua xedatzeko<sup>(4)</sup>– jarraitu behar zaio.

(11) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 178/2002 (EE) Erregelamendua betez –2002ko urtarrilaren 28koa, elikagai-legeriaren printzipioak eta baldintza orokorrak xedatzeko, Elikagaien Segurtasuneko Europar Agintaritza sortzeko, eta elikagai-segurtasunarekin lotutako prozedurak zehazteko<sup>(5)</sup>–, osasun publikoan eragin dezaketen auzietan, Elikagaien Segurtasuneko Europar Agintaritzari (“Agintaritza” aurrerantzean) kontsultatu behar zaio.

(12) Komeni da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1829/2003/EE Erregelamenduari –2003ko irailaren 22koa, genetikoki eraldatutako elikagaiei eta pentsuei buruzkoa<sup>(6)</sup>– aplikazio-eremuan sartzen diren elikagai-gehigarriek baimena izatea Erregelamendu horretan nahiz Erregelamendu honetan xedatutakoaren arabera.

(13) Erregelamendu honen arabera jada baimendutako elikagai-gehigarriek dagokienez, haien ekoizpenean erabilitako metodoak edo lehengaiak Agintaritzak arriskuak zehazteko aintzat hartzen dituen metodo edo lehengaietatik nahiko desberdinak badira, edo zehaztutako espezifikazioekin bat ez badatoz, Agintaritzaren ebaluazioaren mende geratu behar dira. “Nabarmen desberdina” kalifikazioak hauek hartuko lituzke, besteak beste: ekoizpen-metodoa aldatzea, landare batetik erautsi ordez hartzidura bidez erauzteko, mikroorganismo bat erabiliz; jatorrizko mikroorganismoa genetikoki eraldatzea; eta lehengaiak edo partikulen tamaina aldatzea (nanoteknologiaren erabilera barne).

(14) Elikagai-gehigarriak etengabe behatu behar dira, eta, beharrezkoa bada, berriz ebaluatu behar dira, erabilera-baldintzen aldaketak eta zientzia-datu berriak aintzat hartuta. Beharrezkoa bada, Batzordeak eta estatu kideek ekintza egokiak aztertuko dituzte.

(15) 1992ko urtarrilaren lein tokian tokiko zenbait janari tradizioaletan gehigarri jakin batzuk erabiltzeko debekuari eutsi zioten estatu kideek debeku hori aplikatzen jarraitu ahal izango dute. Bestalde, *feta* gazta, *cacciatore* salamia eta izendunak diren beste produktu batzuen kasuan, aintzat hartu behar da beste arau murriztaileago batzuek ezar

<sup>1</sup> L 178 EO, 1995eko uztailaren 28koa, 1. or.

<sup>2</sup> L 226 EO, 1995eko irailaren 22koa, 1. or.

<sup>3</sup> L 339 EO, 1996ko abenduaren 30ekoa, 1. or.

<sup>4</sup> Ikus Egunkari Ofizial honen 1. orrialdea.

<sup>5</sup> L 31 EO, 2002ko otsailaren 1ekoa, 1. or.

<sup>6</sup> L 268 EO, 2003ko urriaren 18koa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

daitezkeela haiek arautzeko. Horren adibide dira Kontseiluaren 510/2006 (EE) Erregelamendua, –2006ko martxoaren 20koa, nekazaritzako produktuen eta elikagaien adierazpen geografikoen eta jatorri-izenen babesari buruzkoa<sup>(1)</sup>, eta Kontseiluaren 509/2006 Erregelamendua, 2006ko martxoaren 20koa, nekazaritzako produktuen eta elikagaien espezialitate tradizional bermatuei buruzkoa<sup>(2)</sup>.

(16) Beste baldintza murriztaile batzuk bete behar dituzten elikagai-gehigarrien kasuan izan ezik, gehigarri jakin bat elikagai batera zeharka gehitzeko baimena emateko aukera izango da, gehigarria zuzenean gehitu ordez, gehigarri hori erabiltzeko baimena duen osagai baten bidez. Nolanahi ere, janari bukatuan, gehigarri-kantitateak ezingo du gaintitu osagai horrek baldintza teknologiko eta ekoizpen-jardunbide egokiak erabilia izango lukeen kantitatea.

(17) Elikagai-gehigarriek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/13/EE Zuzentarauan —2000ko martxoaren 20koa, estatu kideetako legeak elikagaien etiketatze-, aurkezpen- eta publizitate-arloetan elkarri hurbiltzeari buruzkoa<sup>(3)</sup>— xedatutako etiketatze-betebehar orokorrak bete beharko dituzte, eta, kasuen arabera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1829/2003 Erregelamenduan eta 1830/2003 Erregelamenduan<sup>(4)</sup> —2003ko irailaren 22koa, genetikoki eraldatutako organismoen trazabilitateari eta etiketatzeari nahiz organismo horiek oinarri hartuta ekoiztutako janarien eta pentsuen trazabilitateari buruzkoak— xedatutakoa ere bai. Gainera, Erregelamendu honetan, ekoizleari edo azken kontsumitzaileari bere horretan saltzeko elikagai-gehigarrien etiketatzeari buruzko xedapen espezifikokoak zehaztu behar dira.

(18) Erregelamendu honen arabera baimendutako edulkoratzaileak erabili ahal izango dira kontsumitzaileei zuzenean saltzeko mahairako edulkoratzaileetan. Produktu horien ekoizleek behar bezala informatu beharko dute kontsumitzailea, produktua segurtasunez erabil dezan. Informazio hori zenbait modutan eman daiteke; esate baterako, etiketan, Interneteko webguneetan, kontsumitzaileentzako informazio-lineen bidez eta saltokietan. Eskakizun horren aplikazioan ikuspegi bateratua izateko, baliteke Erkidego osorako orientabideak adierazi behar izatea.

(19) Egokia da Erregelamendu hau aplikatzeko beharrezko neurriak Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiaren arabera onartzea. Erabaki horrek Batzordeari dagozkion betearazte-eskumenak gauzatzeko prozedura ezartzen du<sup>(5)</sup>.

(20) Komeni da, bereziki, Batzordeari eskumena ematea, Erregelamendu honen eranskinak aldatzeko eta dagokion neurri iragankorrak onesteko. Neurri horiek orokorrak eta Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatu daitezke), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(21) Eraginkortasunaren mesedetan, komeni da kontrol-dun arautze-prozeduretan aplikatu ohi diren epeak laburtzea II. eta III. eranskinetako zenbait aldaketa onesteko —eranskin horiek, hain zuzen, Erkidegoko beste legeria-egintza batzuen bidez baimenduriko substantziei buruzkoak dira—, eta eranskin horietan adierazitako substantziekin lotutako neurri iragankor egokiak onesteko.

(22) Elikagai-gehigarrii buruzko Erkidegoko legeria neurritz eta eraginkortasunez garatzeko eta eguneratzeko, beharrezkoa da datuak biltzea, informazioa elkartrukatzea eta estatu kideen arteko lana koordinatzea. Horretarako, lagungarria izan daiteke azterketa espezifikokoak egitea, erabakiak hartzeko prozesua errazteko. Komeni da Erkidegoak azterketa horiek finantzatzea, aurrekontu-prozeduraren baitan. Horrelako neurrien finantziakzioa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 882/2004 (EE) Erregelamenduko 2. artikuluan arautzen da. Erregelamendu hori, 2004ko apirilaren 29koa, pentsuen eta elikagaien arloko legeria eta animalien osasun eta ongizateari buruzko araudia betetzen direlako egiaztatpena bermatzeko egindako kontrol ofizialei buruzkoa da<sup>(6)</sup>.

(23) Estatu kideek kontrol ofizialak egin behar dituzte, Erregelamendu hau 882/2004/EE Erregelamenduari jarraiki bete dadin.

(24) Erregelamendu honen helburua da Europar Batasun osorako araudi argia ezartzea elikagai-gehigarrien alorrean; baina hori ezin dute behar bezala bete estatu kideek, horretarako beharrezkoa baita nazioz gaintiko jarduera koordinatua, merkatu-batasunaren eta kontsumitzaileen babes-maila handiaren mesederako. Horren ondorioz, errazago lor daiteke Europar Batasunaren esparruan, Europar Batasunak Itunaren 5. artikuluan finkatutako subsidiariorotasun-printzipioaren arabera neurriak har ditzake-eta. Artikulu horretan aipatutako proportzionaltasun-printzipioaren arabera, erregelamendu honek ez du helburu hori lortzeko beharrezko neurriak besterik hartzen.

<sup>1</sup> L 93 EO, 2006ko martxoaren 31koa, 12. or.

<sup>2</sup> L 93 EO, 2006ko martxoaren 31koa, 1. or.

<sup>3</sup> L 109 EO, 2000ko maiatzaren 6koa, 29. or.

<sup>4</sup> L 268 EO, 2003ko urriaren 18koa, 24. or.

<sup>5</sup> L 184 EO, 1999ko uztailearen 17koa, 23. or.

<sup>6</sup> L 165 EO, 2004ko apirilaren 30koa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(25) Erregelamendu hau onetsi ondoren, Batzordeak, elikadura-katearen eta animalia-osasunaren komite iraunkorraren laguntzaz, emanda dauden baimen guztiak berrikusi behar ditu, segurtasunaz bestelako irizpideak kontuan hartuta; esaterako, ingesta, behar teknologikoa eta kontsumitzaileari gaizkiulertuak eragiteko arriskua. Erkidegoan baimenduta izaten jarraituko duten elikagai-gehigarri guztiak Erregelamendu honen II. eta III. eranskinetako zerrendetara transferitu behar dira. Halaber, Erregelamendu honen III. eranskina osatzeko, elikagai-gehigarrietan eta -entzimetan erabilitako gainerako elikagai-gehigarriak nahiz mantenugaien euskarri gisa erabilitakoak sartu behar dira. Horien guztien erabilera-baldintzak ere adierazi behar dira, 1331/2008/EE Erregelamendua betez. Trantsizio-aldi egokia izateko aukera emateko, elikagai-gehigarrien euskarriekin eta arometako elikagai-gehigarriekin zerikusia ez duten III. eranskineko xedapenak ez dira aplikatu behar 2011ko urtarrilaren 1a arte.

(26) Elikagai-gehigarrien Erkidegoko zerrendak finkatu arte, prozedura erraztu bat zehaztu behar da, lehendik dauden zuzentzaruetako elikagai-gehigarrien zerrendak eguneratu ahal izateko.

(27) 25. kontuan hartuzkoan adierazitako eguneratzeari kalterik egin gabe, Erregelamendu hau onetsi eta urtebeterako epean, Batzordeak ebaluazio-programa bat sortu behar du, Agintaritzak berriz azter dezan Erkidegoan lehendik baimendurik zeuden elikagai-gehigarrien segurtasuna. Programa horretan zehaztuko da baimendutako elikagai-gehigarriak zer beharren arabera eta zer lehentasun-ordenan aztertu behar diren.

(28) Erregelamendu honek egintza hauek indargabetu eta ordeztu ditu:  
Kontseiluaren 62/2645/EEE Zuzentaraua, estatu kideetako araudiak giza elikadurarako produktueta erabil daitezkeen koloratzaileen alorrean elkarri hurbiltzeari buruzkoa <sup>(1)</sup>; Kontseiluaren 65/66/EEE Zuzentaraua, 1965eko urtarrilaren 26koa, giza elikadurarako produktueta erabil daitezkeen kontserbatzaileen purutasun-irizpide espezifikoak zehaztekoa <sup>(2)</sup>; Kontseiluaren 78/663/EEE Zuzentaraua, 1978ko uztailaren 25ekoa, elikadura-produktueta erabil daitezkeen emulsionatzaile, egonkortzaile, lodigarri eta gelifikatzaileen purutasun-irizpide espezifikoak zehaztekoa <sup>(3)</sup>; Kontseiluaren 78/664/EEE Zuzentaraua, 1978ko uztailaren 25ekoa, eragin antioxidatzailea izan eta giza kontsumorako produktueta erabil daitezkeen substantzien purutasun-irizpide espezifikoak zehaztekoa <sup>(4)</sup>; Batzordearen 81/712/EEE Lehen Zuzentaraua, 1981ko uztailaren 28koa, zenbait elikagai-gehigarrien purutasun-baldintzen kontrolerako Erkidegorako azterketa-metodoak finkatzekoa <sup>(5)</sup>; Kontseiluaren 89/107/EEE Zuzentaraua, 1988ko abenduaren 21ekoa, estatu kideetako legeria giza kontsumorako produktueta baimendutako elikagai-gehigarrien alorrean hurbiltzeari buruzkoa <sup>(6)</sup>; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 94/35/EE Zuzentaraua, 1994ko ekainaren 30ekoa, janarietan erabilitako edulkoratzzailei buruzkoa <sup>(7)</sup>; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 94/36/EE Zuzentaraua, 1994ko ekainaren 30ekoa, janarietan erabilitako koloratzailei buruzkoa <sup>(8)</sup>; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 95/2/EE Zuzentaraua, 1995eko otsailaren 20koa, koloratzaileez eta edulkoratzzaileez besteko elikagai-gehigarrii buruzkoa <sup>(9)</sup>; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 292/97/EE Erabakia, 1996ko abenduaren 16koa, janari jakin batzuen ekoizpenean zenbait gehigarri erabiltzea debekatzen duten legeria nazionalerako eusteari buruzkoa <sup>(10)</sup>, eta Batzordearen 2002/247/EE Erabakia, 2002ko martxoaren 27koa, E 425 konjac izeneko elikagai-gehigarria duten gelatina-oinarriko gozogintzako produktuak merkaturatzea eta inportatzea bertan behera uztekoa <sup>(11)</sup>. Hala ere, komeni da egintza horietako zenbait xedapenek indarrean jarraitzea igaraldi batean, Erregelamendu honetako eranskinetako Erkidegoko zerrendak prestatzeko denbora izateko.

HORRENBESTEZ, ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

I. KAPITULUA

### **XEDEA, APLIKAZIO-EREMUA ETA DEFINIZIOAK**

#### *1. artikulua*

<sup>1</sup> EO 115, 1962ko azaroaren 11koa, 2645/62 or.

<sup>2</sup> EO 22, 1965eko otsailaren 9koa, 373. or.

<sup>3</sup> L 223 EO, 1978ko abuztuaren 14koa, 7. or.

<sup>4</sup> L 223 EO, 1978ko abuztuaren 14koa, 30. or.

<sup>5</sup> L 257 EO, 1981eko irailaren 10ekoa, 1. or.

<sup>6</sup> L 40 EO, 1989ko otsailaren 11koa, 27. or.

<sup>7</sup> L 237 EO, 1994ko irailaren 10ekoa, 3. or.

<sup>8</sup> L 237 EO, 1994ko irailaren 10ekoa, 13. or.

<sup>9</sup> L 61 EO, 1995eko martxoaren 18koa, 1. or.

<sup>10</sup> L 48 EO, 1997ko otsailaren 19koa, 13. or.

<sup>11</sup> L 84 EO, 2002ko martxoaren 28koa, 69. or.

# *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

## **Xedea**

Erregelamendu honek elikagaietan erabiltzen diren elikagai-gehigarri buruzko arauak xedatzen ditu, barne-merkatuaren funtzionamendu eraginkorra bermatzeko eta, aldi berean, giza osasunaren eta kontsumitzaileen babes-maila handia dela bermatzeko, kontsumitzaileen interesen babesa nahiz elikagaien merkataritzako jardunbide leialaren babesa barne. Halaber, dagokionean, ingurumenaren babesa ere kontuan hartuko da.

Ondorio horietarako, Erregelamendu honetan, hauek xedatzen dira:

- a) elikagai-gehigarri baimenduen Erkidegorako zerrendak (ikus II. eta III. eranskinak);
- b) elikagaietan elikagai-gehigarriak erabiltzeko baldintzak, hauek barne hartzen direla: elikagai-gehigarrietan eta -entzimetan erabiltzen direnak –1332/2008/EE Erregelamenduen bidez daude araututa–, bai eta elikagai-arometan erabiltzen direnak ere –Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1334/2008/EE Erregelamenduan, 2008ko abenduaren 16koan, elikagaietan erabilitako aromei eta elikagai-osagai lurruntzaile jakin batzuei buruzkoan, araututa daude–<sup>(1)</sup>.
- c) elikagai-gehigarri gisa saltzen diren gehigarrientzako etiketatze-arauak.

## *2. artikulua*

### **Aplikazio-eremua**

1. Erregelamendu hau elikagai-gehigarriei aplikatuko zaie.
2. Erregelamendu hau ez zaie aplikatuko substantzia hauei, baldin eta elikagai-gehigarritzat erabiltzen ez badira:

- a) prozesatzeko laguntza edo koadiubante teknologikoak;
- b) landare-osasunerako Erkidegoko araei jarraiki landareak eta landare-produktuak babesteko erabilitako substantziak;
- c) elikagaiei mantenugai gisa gehitutako substantziak;
- d) Kontseiluaren 98/83/EE Zuzentarauaren –1998ko azaroaren 3koa, giza kontsumorako uren kalitateari buruzkoa<sup>(2)</sup>– aplikazio-eremuan sartzen diren giza kontsumorako uraren tratamenduan erabilitako substantziak;
- e) 1334/2008/EE Erregelamenduaren aplikazio-eremuan sartutako aromak.

3. Erregelamendu hau ez zaie aplikatuko 1332/2008/EE Erregelamenduaren aplikazio-eremuan sartzen diren elikagai-entzimeiei, Erkidegorako haien zerrenda onesten den egunetik hasita. Zerrenda hori aipaturiko Erregelamenduaren 17. artikuluan xedatutako prozedurari jarraiki onetsiko da.

4. Erregelamendu hau aplikatzean, kontuan hartuko da elikagai-gehigarrien erabileraren alorrean Erkidegoko arau espezifikoei xedatutakoa, eta, berariaz,

- a) zenbait elikagai-produktu espezifikori buruz arautzen dutena;
- b) erregelamendu honetaz besteko xedeetarako erabilerak.

## *3. artikulua*

### **Definizioak**

1. Erregelamendu honen xedeetarako, 178/2002/EE eta 1829/2003/EE Erregelamenduetan adierazitako definizioak aplikatuko dira.
2. Erregelamendu honen xedeetarako, halaber,

---

<sup>1</sup> Ikus Egunkari Ofizial honen 34. orrialdea.

<sup>2</sup> L 330 EO, 1998ko abenduaren 5koa, 32. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

a) "elikagai-gehigarriak" dira berez janari gisa kontsumitzen ez diren edo elikagaien berezko osagai gisa erabiltzen ez diren substantziak, nutrizio-balioa izan nahiz ez, eta elikagai bat ekoiztean, eraldatzean, prestatzean, tratatzean, ontziratzean, garraiatzean edo biltegitratzean substantzia gehigarri hori bera edo haren azpiproduktuak zuzenean edo zeharka janariaren osagai bihurtzen badira, edo bihur daitezkeela pentsatzerik badago.

Ez dira elikagai-gehigarritzat joko:

- i) beren ezaugarri edulkoratzaileengatik erabiltzen diren monosakarido, disakarido edo oligosakaridoak, ezta substantzia horiek dituzten produktuak ere.
- ii) janari konposatuak egitean aroma-, zapore- edo nutrizio-ezaugarriengatik gehitzen diren eta efektu koloratzaile sekundarioa duten elikagaiak –deshidratatuak nahiz kontzentratuak, lurrintzaileak barne–.
- iii) janariak estaltzeko materialetan erabilitako substantziak, elikagaien parte izan ez eta jatekoak ez direnak,
- iv) pektina izan eta sagar-pulpa deshidratatutik nahiz zitrikoen azaletatik edo irasagarretatik, edo bi horien nahasketatik, eratorritako produktuak —azido diluitu baten eraginpean egon eta gero sodio- edo potasio-gatzen bidez neutralizazio partziala izan dutenak (“pektina likidoa”)—.
- v) txikleetarako oinarritzko gomak,
- vi) destrina zuria edo horia, almidoi txigortua edo destrinatua, tratamendu azido edo alkalino bidez eraldatutako almidoia, almidoi zuritua, bitarteko fisiko bidez eraldatutako almidoia eta entzima amilolitikoez tratatutako almidoia,
- vii) amonio kloruroa:
- viii) odol-plasma, jateko gelatina, proteinen hidrolizatuak eta haien gatzak, esne-proteina eta glutena,
- ix) aminoazidoak eta haien gatzak, hauek izan ezik: azido glutamikoa, glizina, zisteina eta zistina, eta funtzio teknologikorik gabeko haien gatzak.
- x) kaseinatoak eta kaseina,
- xi) inulina;

b) substantzia hauek jotzen dira “prozesatzeko laguntza edo koadiubante teknologikotzat”:

- i) janari gisa berez kontsumitzen ez direnak,
- ii) lehengaiak, elikagaiak edo haien osagaiak eraldatzeko nahita erabiltzen direnak, tratamenduan edo eraldaketan helburu teknologiko jakin bat lortzeko, eta
- iii) azken produktuan substantzia bera edo substantziaren deribatuak egotea eragin dezaketen substantziak —nahi gabeko presentzia, baina eragoztezina teknika bidez—, baldin eta osasunerako arriskurik ez badute, ezta ondorio teknologikorik azken produktuan ere.

c) “maila funtzionalak”: I. eranskinean zehaztutako kategoriak, elikagai-gehigarriak janariak duen eginkizun teknologikoaren arabera;

d) “prestatu gabeko elikagaia”: jatorrizko egoeran aldaketa garrantzitsurik eragin dezakeen inolako tratamendurik izan gabeko elikagaia. Hori dela-eta, ekintza hauek aldaketa garrantzitsurik ez dutela eragiten jotzen da: erdibitzea, zatitzea, hezurgabetzea, xehatzea, larrutzea, zuritzea, azala kentzea, mamurtzea, moztea, garbitzea, ebakitzea, ultraizoztea, izoztea, hoztea, ehotzea, kroskoa kentzea, ontziratzea edo ontzitik ateratzea;

e) hauek dira “azukrerik gehitu gabeko elikagaiak”:

- i) monosakarido edo disakaridorik gehituta ez duten elikagaiak,
- ii) monosakaridoak edo disakaridoak izanik, beren propietate edulkoratzaileengatik erabiltzen den elikagairik gehituta ez duten elikagaiak;

f) “energia-balio murriztua duen elikagaia”: jatorrizko elikagaiaren edo antzeko produktu batekin konparatuta, energia-balioa gutxienean %30ean murriztua duen elikagaia.

g) “mahairako edulkoratzaileak”: baimendutako edulkoratzaileen prestakinak; beste elikagai-gehigarriak edo osagaiak izan ditzakete eta azken kontsumitzaileari azukrearen ordeztatzekoak dira;

h) “quantum satis”: zenbakizko gehienezko maila zehazten ez dela esan nahi du, eta substantziak erabiltzean, ekoizteko jardunbide onei jarraituko behar zaiela, erdietsi nahi den helburua lortzeko mailatik gora erabili gabe, eta kontsumitzaileari oker pentsarazi gabe.

## II. KAPITULUA

## **ELIKAGAI-GEHIGARRI BAIMENDUEN ERKIDEGOKO ZERRENDAK**

### *4. artikulua*

#### **Elikagai-gehigarrien Erkidegoko zerrendak**

1. II. eranskineko Erkidegoko zerrendan sartutako elikagai-gehigarriak soilik merkaturatu ahal izango dira elikagai-gehigarri gisa, eta elikagaietan erabili, eranskin horretan zehaztutako baldintzetan.
2. III. eranskineko Erkidegoko zerrendan sartutako elikagai-gehigarriak soilik erabili ahal izango dira elikagai-gehigarrietan, -entzimetan eta -arometan, eranskin horretan zehaztutako baldintzetan.
3. II. eranskineko zerrendan elikagai-gehigarriak sartzerakoan, zer elikagai-kategoriatan erabil daitezkeen hartuko da kontuan.
4. III. eranskineko zerrendan elikagai-gehigarriak sartzerakoan, zer elikagai-gehigarritan, -entzimatari, -aromatar, mantengaitan edo horietako guztietako zer kategoriatan erabil daitezkeen hartuko da kontuan.
5. Elikagai-gehigarriek 14. artikuluan aipatutako espezifikazioak bete behar dituzte.

### *5. artikulua*

#### **Elikagai-gehigarri eta elikagai ez-onargarriak debekatzea**

Elikagai-gehigarrien baten erabilera Erregelamendu honetan araututakoarekin bat ez badator, debekatuta dago elikagai-gehigarri hori merkaturatzea, bai eta elikagai-gehigarri hori duen elikagai oro merkaturatzea ere.

### *6. artikulua*

#### **Elikagai-gehigarri Erkidegoko zerrendetan sartzeko baldintza orokorrak**

1. Elikagai-gehigarri bat II. eta III. eranskinetako Erkidegoko zerrendetan sartzeko, nahitaez bete behar ditu baldintza hauek, bai eta, hala badagokio, beste baldintza legitimo batzuk ere, ingurumen-faktoreak barne:
  - a) eskura dauden proba zientifikoen arabera eta proposaturiko erabilera-mailan, ez dio kalterik eragin behar kontsumitzailearen osasunari, eta
  - b) zentzuzko behar teknologikoren batek egon behar du, beste ekonomia- eta teknologia-bitarteko bideragarri batzuen bidez ase ez daitekeena, eta
  - c) elikagai-gehigarriaren erabilera ez dio gaizkiulerturik eragin behar kontsumitzaileari.
2. II. eta III. eranskinetako Erkidegoko zerrendetan sartzeko, elikagai-gehigarri batek abantailak eta onurak izan behar ditu kontsumitzailearentzat. Beraz, helburu hauetako bat edo batzuk bete behar ditu:
  - a) janariaren nutrizio-kalitatea kontserbatzea;
  - b) behar dietetiko bereziak dituzten kontsumitzaile-taldeentzako janariak prestatzeko osagaiak hornitzea;
  - c) elikagai baten egonkortasuna edo kontserbazioaren kalitatea hobetzea, edo haren propietate organoleptikoak hobetzea, elikagaiaren izaera, funtsa edo kalitatea aldatu gabe, kontsumitzaileari gaizkiulerturik ez eragiteko moduan;
  - d) elikagaiaren (elikagai-, entzima- eta aroma-gehigarriak barne) ekoizpen, eraldaketa, prestaketa, tratamendu, ontziratze, garraio edo biltegiatzerako lagungarria izatea, baldin eta elikagai-gehigarria ez bada erabiltzen lehengai kaskarrak edo jardunbide edo teknika ez-egokiak erabiltzearen ondorioak disimulatze; batez ere, higienearen aurkako jardunbide edo teknikak erabili izana aipatutako jarduera horietan guztietan.
3. 2. paragrafoa a) idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, elikagai baten nutrizio-kalitatea murrizten duten elikagai-gehigarriak II. eranskineko Erkidegoko zerrendan sar daitezke, baldin eta:
  - a) elikagaia ez bada osagai garrantzitsua dieta normal batean, edo
  - b) elikagai-gehigarria beharrezkoa bada dieta-behar bereziak dituzten kontsumitzaile-taldeentzako janariak ekoizteko.



*7. artikulua*

**Edukoratzaileentzako baldintza bereziak**

Elikagai-gehigarri jakin bat II. eranskineko Erkidegoko zerrendako edukoratzaielen maila funtzionalean sartzeko, 6. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako helburuetako bat edo batzuk betetzeko balio izateaz gain, helburu hauetako bat edo batzuk bete behar ditu:

- a) azukreak ordezteko balio energetiko murriztuko elikagaien, elikagai ez-kariogenikoen edo azukre gehiturik gabeko elikagaien ekoizpenean, edo
- b) azukreak ordezteko, ordezkapen horrek elikagaiaren kontserbazio-epea luzatzeko balio badu, edo
- c) elikadura berezirako elikagaiak ekoizteko erabiltzea, 89/398/EEE Zuzentarauko 1. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatian adierazitako definizioaren arabera.

*8. artikulua*

**Koloratzaileentzako baldintza bereziak**

Elikagai-gehigarri jakin bat II. eranskineko Erkidegoko zerrendako koloratzaileen maila funtzionalean sartzeko, 6. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako helburuetako bat edo batzuk betetzeko balio izateaz gain, helburu hauetako bat edo batzuk bete behar ditu:

- a) eraldatzeko, biltegiratzeko, ontziratzeko edo banatzeko prozesuan kolorea galtzeagatik ikusizko erakargarrtasuna galdu duten elikagaien jatorrizko itxura berreskuratzen laguntzea;
- b) elikagaien ikusizko erakargarrtasuna areagotzea;
- c) kolorerik gabeko elikagaiak koloreztatzea.

*9. artikulua*

**Elikagai-gehigarrien maila funtzionalak**

1. II. eta III. eranskinetan, I. eranskineko maila funtzionaletako batean sartu ahal izango dira elikagai-gehigarriak, beren eginkizun teknologiko nagusiaren arabera.

Elikagai-gehigarri bat maila funtzional batean sartzeak ez du esan nahi beste eginkizun batzuetarako erabili ezin denik.

2. Aurrerapen zientifikoak edo garapen teknologikoa direla-eta beharrezkoa bada, Erregelamendu honetako ez-funtsezko elementuak aldatzeko neurriak eta I. eranskinean gehi daitezkeen maila funtzional berriei buruzko neurriak 28. artikuluko 3. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

*10. artikulua*

**Elikagai-gehigarrien Erkidegoko zerrenden edukia**

1. 6., 7. eta 8. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten elikagai-gehigarriak zerrenda hauetan sartu ahal izango dira, 1331/2008/EE Erregelamenduan agindutako prozedurari jarraiki:

- a) Erregelamendu honetako II. eranskineko Erkidegoko zerrendan, edo
  - a) Erregelamendu honetako III. eranskineko Erkidegoko zerrendan.
2. II. eta III. eranskinetako Erkidegoko zerrendetako elikagai-gehigarri bakoitzaren sarreran, honako hauek adierazi behar dira:
- a) elikagai-gehigarriaren izena eta haren E zenbakia;
  - b) gehigarri hori zer elikagaitan gehi daitekeen;
  - c) zer baldintzatan erabil daitekeen;

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

d) hala badagokio, gehigarria azken kontsumitzaileari zuzenean saltzeko murrizketarik dagoen.

3. II. eta III. eranskinetako Erkidegoko zerrendak 1331/2008/EE Erregelamenduan agindutako prozedurari jarraiki aldatuko dira.

### *11. artikulua*

#### **Elikagai-gehigarrien erabilera-maila**

1. 10. artikuluko 2. paragrafoko c) idatz-zatian adierazitako erabilera-baldintzak zehaztean:

a) lortu nahi den efektua erdiesteko behar den balio minimoan finkatuko da erabilera-maila;

b) mailak honako hauek kontuan hartuta finkatuko dira:

- i) dagokion elikagai-gehigarrietik egunean har daitekeen kantitatea, edo haren kalkulu baliokidea, iturri guztiak kontuan hartuta.
- ii) elikagai-gehigarria kontsumitzaile-talde bereziak jango dituzten elikagaiak ekoizteko erabili behar bada, talde horiek egunean hartuko luketen kantitatea.

2. Hala dagokionean, ez da zenbakizko balio maximorik zehaztuko elikagai-gehigarrietzat (quantum satis). Horrelakoetan, elikagai-gehigarria quantum satis printzipioari jarraiki erabiliko da.

3. Besterik xedatu ezean, II. eranskinean zehaztutako elikagai-gehigarrien maila maximoek merkaturatutako elikagaiei aplikatuko zaizkie. Printzipio horretan xedatutakoa gorabehera, berrerratu behar diren elikagai desidratatuen edo kontzentratuen kasuan, berrerratutako elikagaiei aplikatuko zaizkie maila maximoak, etiketako jarraibideei jarraiki, diluzio-faktore minimoa kontuan hartuta.

4. Besterik xedatu ezean, koloratzaileak duen osagai koloratzailearen kantitateei aplikatuko zaizkie II. eranskinean zehaztutako koloratzaileen maila maximoak.

### *12. artikulua*

#### **Aldaketak Erkidegoko zerrendako elikagai-gehigarri baten ekoizpen-prozesuan edo lehengaietan**

Elikagai-gehigarri bat Erkidegoko zerrenda batean jada badago, eta haren ekoizpen-metodoan edo hura ekoizteko erabiltzen diren lehengaietan aldaketa garrantzitsurik badago, edo partikulen tamaina aldatzen bada – esaterako, nanoteknologia bidez–, metodo edo lehengai berri horien bidez ekoiztutako elikagai-gehigarria elikagai-gehigarri desberdintzat joko da, eta, merkaturatu aurretik, beste sarrera bat gehitu beharko da Erkidegoko zerrendetan, edo espezifikazioak aldatu.

### *13. artikulua*

#### **1829/2003/EE Erregelamenduaren aplikazio-eremuan sartutako elikagai-gehigarriak**

1. 1829/2003/EE Erregelamenduaren aplikazio-eremuan sartutako elikagai-gehigarriak Erregelamendu honetako II. eta III. eranskinetako Erkidegoko zerrendetan sar daitezke, baina horretarako, baimena izan behar dute, 1829/2003/EE Erregelamenduaren arabera.

2. Erkidegoko zerrendetan sartutako elikagai-gehigarri bat ekoizteko iturri desberdin bat erabiltzen bada, 1829/2003/EE Erregelamenduaren aplikazio-eremuan sartzen dena, ez da baimen berri bat beharko Erregelamendu honen arabera, baldin eta iturri berriak baimena badu 1829/2003/EE Erregelamenduaren arabera, eta elikagai-gehigarriak Erregelamendu honetako espezifikazioak betetzen baditu.

### *14. artikulua*

#### **Elikagai-gehigarrien espezifikazioak**

Elikagai-gehigarriei buruzko espezifikazioak –batez ere, jatorriari, purutasun-irizpideei eta beharrezko bestelako informazioari buruzkoak– elikagai-gehigarria II. eta III. eranskinetako Erkidegoko zerrendetan lehen aldiz sartzean zehaztuko dira, 1331/2008/EE Erregelamenduan agindutako prozedurari jarraiki.

## III. KAPITULUA

### **ELIKAGAI-GEHIGARRIEN ERABILERA ELIKAGAIETAN**

### *15. artikulua*

### **Elikagai-gehigarrien erabilera prestatu gabeko elikagaietan**

Ezin da elikagai-gehigarriak erabili prestatu gabeko elikagaietan, baldin eta aukera hori II. eranskinean zehatz-mehatz adierazten ez bada.

#### *16. artikulua*

### **Elikagai-gehigarrien erabilera bularreko umeentzako eta haur txikientzako elikagaietan**

89/398/EEE Zuzentarauari jarraiki, ez dira elikagai-gehigarriak erabiliko bularreko umeentzako eta haur txikientzako elikagaietan, batez ere, erabilera mediko bereziko elikagaietan, baldin eta aukera hori zehatz-mehatz adierazten ez bada Erregelamendu honetako II. eranskinean.

#### *17. artikulua*

### **Markatzeko koloratzaileen erabilera**

Erregelamendu honetako II. eranskinean adierazitako elikagai-koloratzaileak baino ezingo dira erabili honako hauetarako: osasun-markaketarako, Kontseiluaren 91/497/EEE Zuzentarauaren arabera –1991ko uztailearen 29koa, 64/433/EEE Zuzentaraua, haragi freskoko Erkidegoko barruko trukeetako osasun-arazoei buruzkoa<sup>1</sup>, aldatzen eta kodetzen duena, Zuzentarau hori haragi freskoen ekoizpenera eta merkaturatzera zabaltzeko–, bai eta dekorazio-koloreztatzerako eta arrautza-oskolen markaketarako ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 853/04 Erregelamenduaren arabera –2004ko apirilaren 29koa, animalia-jatorriko elikagaientzako osasun-arau zehatzak xedatzeko<sup>2</sup>–.

#### *18. artikulua*

### **Transferentzia-printzipioa**

1. Honako hauek elikagai-gehigarriak izan ditzakete:

a) II. eranskinean adierazitakoez besteko elikagai konposatuak, baldin eta elikagai-gehigarria elikagai konposatuaren osagaietako batean erabiltzeko baimena badago.

b) elikagai-gehigarri, -entzima edo -lurrintzaileen bat gehitu zaien elikagaiek, baldin eta elikagai-gehigarria:

- i) elikagai-gehigarrian, -entziman edo -lurrintzailean erabiltzerik badago, Erregelamendu honen arabera, eta,
- ii) elikagai horretara elikagai-gehigarriaren, -entzimaren edo -lurrintzailearen bidez transferitu bada, eta
- iii) elikagai bukatuan eginkizun teknologikorik ez badu;

c) soilik elikagai konposatu bat prestatzeko erabiliko diren elikagaiek, baldin eta elikagai konposatu horrek Erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen badu.

2. Zehatz-mehatz adierazi ezean, 1. paragrafoa ez zaie aplikatuko bularreko umeentzako formulai, jarraipenerako formulai, zerealetan oinarrituta egindako elikagaiei, haurrentzako elikagaiei, eta bularreko umeentzako eta haur txikientzako erabilera mediko bereziko elikagai dietetikoei, 89/398/EEE Zuzentarauan xedatutakoari jarraiki.

3. Elikagai-lurrintzaile, -gehigarri edo -entzima baten elikagai-gehigarria elikagai batera gehitzen bada eta elikagai horretan eginkizun teknologikorik badu, elikagai horren elikagai-gehigarritzat joko da, eta ez elikagai-lurrintzaile, -gehigarri edo -entzimaren gehigarritzat, eta elikagai horretarako xedaturiko baldintzak bete beharko ditu.

4. 1. paragrafoan xedatutakoa alde batera utzi gabe, badago elikagai-gehigarri bat edulkoratzaile gisa erabiltzea azukre gehiturik ez duten elikagai konposatuetan, balio energetiko murriztuko elikagai konposatuetan, kaloria gutxiko dietetarako elikagai konposatu dietetikoetan, elikagai konposatu ez-kariogenikoetan eta balio-bizitza

<sup>1</sup> L 268 EO, 1991ko irailaren 24koa, 69. or.

<sup>2</sup> L 139 EO, 2004ko apirilaren 30ekoa, 55. or.; hemen zuzendutako bertsioa: L 226 EO, 2004ko ekainaren 25ekoa, 22. or.

luzatuko elikagai konposatueta, baldin eta edulkoratzailea elikagai konposatuena osagaietakoren batean erabiltzerik badago.

*19. artikulua*

**Interpretazio-erabakiak**

Beharrezkoa gertatuz gero, hauek erabaki ahal izango dira, 28. artikuluko 2. paragrafoan jasotako arautze-prozedurari jarraiki:

- a) elikagai jakin bat II. eranskinean aipatutako elikagai-kategorietako batekoa den, edo
- b) II. eta III. eranskinetan adierazitako gehigarri bat, “quantum satis” baimena izanik, 11. artikuluko 2. paragrafoan agindutako irizpideen arabera erabiltzen den, edo
- c) substantzia jakin bat 3. artikuluan elikagai-gehigarrientzat adierazitako definizioarekin bat datorren.

*20. artikulua*

**Elikagai tradizionalak**

IV. eranskinean adierazitako estatu kideek beren lurraldeetan ekoitzi eta eranskinean adierazten diren elikagai tradizionaletan elikagai-gehigarrien zenbait kategoria erabiltzea debekatzen jarraitu ahal izango dute.

IV. KAPITULUA

**ETIKETATZEA**

*21. artikulua*

**Azken kontsumitzaileari saltzeko ez diren elikagai-gehigarriak etiketatzea**

1. Azken kontsumitzaileari saltzeko ez diren elikagai-gehigarriak –bereizita, elkarren artean nahasita zein 2000/13/EE Zuzentarauan osagaitzat definitutako beste substantzia batzuekin nahasita salduak– merkaturatzeko, nahitaez jarri behar zaie Erregelamendu honetako 22. artikuluan xedatutako etiketa. Etiketa horrek erraz ikusteko eta irakurtzeko modukoa izan behar du, bai eta ezabagaitza ere. Informazioa erosleek erraz ulertzeko moduko hizkeran adierazi behar da.

2. Estatu kideek, Tratatuari jarraiki, xedatu ahal izango dute, bakoitzak bere lurraldean, merkaturatutako produktuari buruz eman behar den informazioa, 22. artikuluan adierazia, estatu kideak berak erabakitako erkidegoen hizkuntza ofizialean edo hizkuntza ofizialetan eman behar dela. Nolanahi ere, horrek ez du eragozten informazioa beste hizkuntza batzuetan ere ematea.

*22. artikulua*

**Azken kontsumitzaileari saltzeko ez diren elikagai-gehigarriak etiketateari buruzko baldintza orokorrak**

1. Azken kontsumitzaileari saltzeko ez diren elikagai-gehigarriak bereizita, elkarren artean nahasita, beste elikagai-osagaiekin nahasita edo beste substantzia batzuk gehituta saltzen badira, elikagai-gehigarri horien ontzietan informazio hau adierazi behar da:

- a) elikagai-gehigarri guztien izena edo E zenbakia, erregelamendu honetan xedatutakoari jarraiki, edo elikagai-gehigarri bakoitzaren izena edo E zenbakia duen salmenta-izendapena.
- b) “janarietarako” edo “soilik janarietan erabiltzekoa” aipua, edo elikagaietan eman litzaiokeen erabileraren erreferentzia zehatzagoa;
- c) hala behar bada, biltegitatzeko eta erabiltzeko baldintza bereziak;
- d) sorta edo saila identifikatzeko markaren bat;
- e) erabiltzeko jarraibideak, baldin eta horiek izan ezean elikagai-gehigarria egoki ez erabiltzeko arriskurik badago;
- f) ekoizlearen, ontziratzailearen edo saltzailearen izena edo sozietatearen izena, eta helbidea;

g) elikagaietan erabiltzeko kantitate-mugarik duten osagaietatik edo osagai-multzoetatik erabil daitekeen kantitate maximoa, edo bestela, erosleak Erregelamendu hau eta Erkidegoko gainerako legedia bete ahal izateko behar duen informazio egokia, argi, garbi eta erraz ulertzeko moduan adierazia; kantitate-muga hori berezita edo elkarren artean nahasita erabiltzeko osagai-multzo bati buruzkoa bada, ehuneko konbinatua zenbaki bakar baten bidez adieraz daiteke; kantitate-muga, berriz, zenbaki bidez adierazi beharko da, edo *quantum satis* printzipioaren bidez;

h) kantitate garbia;

i) gutxieneko iraunkortasun-data edo iraungitze-data;

j) hala badagokio, artikulua honetan adierazitako eta 2000/13/EE zuzentarauko III. bis eranskinean zerrendatutako elikagai-gehigarriei edo bestelako substantziei buruzko informazioa; hain zuzen, elikagaigintzako produktuen osagaiei buruzko informazioa.

2. Elikagai-gehigarriak elkarren artean edo beste elikagai-osagai batzuekin nahasita saltzen badira, haien ontzietan osagai guztien zerrenda adierazi behar da, ordenan, guztizko pisuan ehuneko handiena duenetik ehuneko txikiena duenera.

3. Elikagai-gehigarriei substantziak (elikagai-gehigarriak edo beste elikagai-osagai batzuk barne) gehitzen bazaizkie, errazago biltegitratzeko, saltzeko, normalizatzeko, diluitzeko edo disolbatzeko, haien ontzietan substantzia horien guztien zerrenda adierazi behar da, ordenan, guztizko pisuan ehuneko handiena duenetik ehuneko txikiena duenera.

4. 1., 2. eta 3. paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, 1. paragrafoko e), f) eta g) idatz-zatietan eta 2. eta 3. paragrafoetan eskatutako informazioa, produktua entregatzean edo entregatu aurretik sortari buruz eman behar diren agirietan soilik adieraz daiteke, baldin eta produktuaren ontzian, erraz ikusteko lekuan, "ez da txikizkako salmentarako" aipua adierazten bada.

5. 1., 2. eta 3. paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, elikagai-gehigarriak andeletan hornitzen badira, entregatzeko unean sortari buruz eman behar diren agirietan soilik adieraz daiteke informazio guztia.

### 23. artikulua

#### **Azken kontsumitzaileari saltzeko elikagai-gehigarriak etiketatzea**

1. 2000/13/EE Zuzentarauan, Kontseiluaren 89/396/EEE Zuzentarauan –1989ko ekainaren 14koa, elikagaigintzako produktu bat zer lotetakoa den identifikatzeko markei edo aipuei buruzkoa <sup>(1)</sup>– eta 1829/2003/EE Erregelamenduan xedatutakoa alde batera utzi gabe, azken kontsumitzaileari saltzeko elikagai-gehigarriak (berezita nahiz elkarren artean eta/edo beste elikagai-osagai batzuekin nahasita salduak) merkaturatzeko, nahitaez adierazi behar da informazio hau haien ontzietan:

a) elikagai-gehigarri guztien izena eta E zenbakia, Erregelamendu honetan xedatutakoari jarraiki, edo elikagai-gehigarri bakoitzaren izena edo E zenbakia duen salmenta-izendapena.

b) "janarietarako" edo "janarietarako, erabilera mugatua" aipua, edo elikagaietan eman litzaiokeen erabileraren erreferentzia zehatzagoa.

2. 1. paragrafoko a) idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, mahairako edulkoratzaileen salmenta-izendapenek «mahairako edulkoratzailea, ...-etan oinarritua» aipua izan behar dute, eta haiek egiteko erabili diren edulkoratzailearen edo edulkoratzaileen izena erabili behar da.

3. Poliolak, aspartamoa edo aspartamo-azesulfamo gatza duten mahairako edulkoratzaileen etiketetan, ohar hauek adierazi behar dira:

a) poliolak: «gehiegizko kontsumoak ondorio laxanteak izan ditzake»;

b) aspartamo edo aspartamo-azesulfamo gatza: «fenilalanina dauka»;

4. Mahairako edulkoratzaileen ekoizleek kontsumitzaileek edulkoratzaileak segurtasunez erabiltzeko behar den informazioa eman behar dute, behar bezala. Paragrafo hau aplikatzeko orientabideak onar daitezke, 28. artikuluko 3. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera.

---

<sup>1</sup> L 186 EO, 1989ko ekainaren 30ekoa, 21. or.

5. Artikulu honetako 1., 2. eta 3. paragrafoetan adierazitako informazioari dagokionez, 2000/13/EE Zuzentarauko 13. artikuluko 2. paragrafoa aplikatuko da.

*24. artikulua*

**Elikagai-koloratzaile jakin batzuk dituzten elikagaientzako etiketatze-baldintzak**

1. 2000/13/EE Zuzentaruaren xedatutakoa alde batera utzi gabe, Erregelamendu honetako V. eranskinean adierazitako elikagai-koloratzaileak dituzten elikagaien etiketatzean, eranskin horretan xedatutako informazio gehigarria adierazi behar da.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoan adierazitako informazioari dagokionez, 2000/13/EE Zuzentarauko 13. artikuluko 2. paragrafoa aplikatuko da.

3. Zientzia-aurrerapenak edo teknika-garapena direla-eta beharrezkoa bada, V. eranskina aldatuko da, Erregelamendu honetako elementu ez-funtsezkoak aldatzeko neurrien bidez, 28. artikuluko 4. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera.

*25. artikulua*

**Beste etiketatze-baldintza batzuk**

21., 22., 23. eta 24. artikuluetako xedapenak aplikatzean, bete behar dira, halaber, metrologiarekin lotutako lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapen zehatzagoak edo zabalagoak, bai eta substantzia edo prestakin arriskutsuak aurkeztu, sailkatu, ontziratatu eta etiketatzearekin lotutakoak zein substantzia eta prestakin horiek garraiatzeari buruzkoak ere.

V. KAPITULUA

**PROZEDURAZKO ETA APLIKAZIORAKO XEDAPENAK**

*26. artikulua*

**Informatzeko betebeharra**

1. Elikagai-gehigarrien ekoizle edo erabiltzaile orok berehala informatu behar dio Batzordeari, elikagai-gehigarriaren segurtasun-ebaluazioan eragin dezakeen datu zientifiko edo tekniko berririk izanez gero.

2. Elikagai-gehigarrien ekoizle edo erabiltzaile orok elikagai-gehigarriaren benetako erabilerari buruz informatu behar dio Batzordeari, azken horrek hala eskatuta. Batzordeak informazio hori estatu kideen eskura jarriko du.

*27. artikulua*

**Elikagai-gehigarrien ingestaren jarraipena**

1. Estatu kideek elikagai-gehigarrien kontsumoaren eta erabileraren jarraipena egiteko sistemak antolatu behar dituzte, arriskuetan oinarritutako ikuspegia hartuta, eta aldi-aldi, emaitzen berri emango diete Batzordeari eta Agintaritzari.

2. Agintaritzari kontsultatu eta gero, eta 28. artikuluko 2. paragrafoan agindutako arautze-prozeduraren arabera, metodologia bateratua onetsiko da, estatu kideek Erkidegoan izaten den elikagai-gehigarrien ingesta dietetikoari buruzko informazioa biltzeko.

*28. artikulua*

**Komitearen prozedura**

1. Batzordeak elikadura-katearen eta animalia-osasunaren komite iraunkorren laguntza izango du.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikuluek aplikatuko dira, eta hartako 8. artikuluan xedatutakoa bete egingo da.

1999/468/EE Erabakiko 6. paragrafoko 5. artikuluan jasotako epea hiru hilabetekoa izango da.

3. Paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5.bis artikuluko 1., 2., 3. eta 4. paragrafoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedatutakoa ere betez.

4. Paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5.bis artikuluko 1., 2., 3. eta 4. paragrafoak, 5. paragrafoko b) idatz-zatia, eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedatutakoa ere betez.

1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 3. paragrafoko c) idatz-zatian, eta 4. paragrafoko b) eta e) idatz-zatietan agindutako epeak hauek izango dira: bi hilabete, bi hilabete, eta lau hilabete, hurrenez hurren.

#### *29. artikulua*

#### **Politika harmonizatuen Erkidegoko finantziarioa**

882/2004/EE Erregelamenduko 66. artikuluko 1. paragrafoko c) idatz-zatia izango da Erregelamendu honen ondorioz hartu beharreko neurrien finantziariorako oinarri juridikoa.

#### VI. KAPITULUA

#### **XEDAPEN IRAGANKORRAK ETA AZKEN XEDAPENAK**

#### *30. artikulua*

#### **Elikagai-gehigarrien Erkidegoko zerrendak zehaztea**

1. 94/35/EE, 94/36/EE eta 95/2/EE Zuzentarauen arabera elikagaietan erabil daitezkeen elikagai gehigarriak — Erregelamendu honetako 31. artikulua aldatzen ditu zuzentarau horiek— eta elikagai-gehigarri horien erabilera-baldintzak Erregelamendu honetako II. eranskinean adieraziko dira, Erregelamenduko 6., 7. eta 8. artikuluan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko berrikuspena egin ondoren.

Elikagai-gehigarri horiek II. eranskinean sartzearekin lotutako neurriak, Erregelamendu honetako elementu ez-funtsezkoak aldatzekoak, 28. artikuluko 4. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko dira. Berrikuspen horretarako, Agintaritzak ez du arrisku-ebaluazio berri bat egingo.

Gehienez jota, berrikuspenak 2011ko urtarrilaren 20rako amaituta egon beharko du.

Aurrerantzean behar ez diren elikagai-gehigarriak eta haien erabilera-baldintzak ez dira II. eranskinean azalduko.

2. 95/2/EE Zuzentarauen arabera elikagai-gehigarrietan erabil daitezkeen elikagai-gehigarriak eta elikagai-gehigarri horien erabilera-baldintzak Erregelamendu honetako III. eranskineko 1. zatian sartuko dira, Erregelamenduko 6. artikuluan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko berrikuspena egin ondoren. Elikagai-gehigarri horiek III. eranskinean sartzearekin lotutako neurriak, Erregelamendu honetako elementu ez-funtsezkoak aldatzekoak, 28. artikuluko 4. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko dira. Berrikuspen horretarako, Agintaritzak ez du arrisku-ebaluazio berri bat egingo.

Gehienez jota, berrikuspenak 2011ko urtarrilaren 20rako amaituta egon beharko du.

Aurrerantzean behar ez diren elikagai-gehigarriak eta haien erabilera-baldintzak ez dira III. eranskinean azalduko.

3. 95/2/EE Zuzentaruaren arabera elikagai-arometan erabil daitezkeen elikagai-gehigarriak eta elikagai-gehigarri horien erabilera-baldintzak Erregelamendu honetako III. eranskineko 4. zatian sartuko dira, Erregelamenduko 6. artikuluan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko berrikuspena egin ondoren. Elikagai-gehigarri horiek III. eranskinean sartzearekin lotutako neurriak, Erregelamendu honetako elementu ez-funtsezkoak aldatzekoak, 28. artikuluko 4. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko dira. Berrikuspen horretarako, Agintaritzak ez du arrisku-ebaluazio berri bat egingo.

Gehienez jota, berrikuspenak 2011ko urtarrilaren 20rako amaituta egon beharko du.

Aurrerantzean behar ez diren elikagai-gehigarriak eta haien erabilera-baldintzak ez dira III. eranskinean azalduko.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

4. 1331/2008/EE Erregelamenduari jarraiki, artikuluko honetako 1., 2. eta 3. paragrafoetan adierazitako elikagai-gehigarrientzako espezifikazioak elikagai-gehigarriak eranskinetan sartzean onartuko dira, paragrafo horietan xedatutakoaren arabera.

5. Erregelamendu honetako elementu ez-funtsezkoak aldatzeko neurri iragankor oro –osagarriak ere izan daitezke– 28. artikuluko 3. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko dira.

### *31. artikulua*

#### **Neurri iragankorrak**

Elikagai-gehigarrien Erkidegoko zerrendak 30. artikuluan xedatutakoaren arabera amaitu bitartean, 94/35/EE, 94/36/EE eta 95/2/EE Zuzentarauen eranskinak aldatu behar badira, Zuzentaru horien elementu ez-funtsezkoak aldatzeko neurrien bidez aldatuko dira. Batzordeak onartuko behar ditu aldaketa horiek, 28. artikuluko 4. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera.

Erregelamendu honetako 22. artikuluko 1. paragrafoko i) idatz-zatian xedatutakoa bete ez eta 2010eko urtarrilaren 20ean baino lehen merkaturatutako edo etiketatutako produktuak beren gutxieneko iraunkortasun-data edo iraungitze-data arte merkaturatu ahal izango dira.

24. artikuluan xedatutakoa bete ez eta 2010eko uztailaren 20ean baino lehen merkaturatutako edo etiketatutako produktuak beren gutxieneko iraunkortasun-data edo iraungitze-data arte merkaturatu ahal izango dira.

### *32. artikulua*

#### **Baimendutako elikagai-gehigarrien berrebaluazioa**

1. 2009ko urtarrilaren 20a baino lehen baimenduta zeuden elikagai-gehigarrien arrisku-berrebaluazioa egingo du Agintaritzak.

2. Agintaritzak kontsultatu eta gero, programa bat onetsiko da elikagai-gehigarri horientzat, 2010eko urtarrilaren 20a baino lehen, 28. artikuluko 2. paragrafoan agindutako arautze-prozeduraren arabera. Ebaluazio-programa *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratuko da.

### *33. artikulua*

#### **Indargabetzeak**

1. Egintza hauek indargabetu egiten dira:

a) 1962ko urriaren 23ko Kontseiluaren Zuzentaraua, giza elikadurarako erabil daitezkeen koloratzaileen esparruan estatu kideek dituzten legediak elkarri hurbiltzeari buruzkoa.

b) 65/66/EEE Zuzentaraua;

c) 78/663/EEE Zuzentaraua;

d) 78/664/EEE Zuzentaraua;

e) 81/712/EEE Zuzentaraua;

f) 89/107/EEE Zuzentaraua;

g) 94/35/EE Zuzentaraua;

h) 94/36/EE Zuzentaraua;

i) 95/2/EE Zuzentaraua;

j) 292/97/EE Erabakia;

k) 2002/247/EE Erabakia.

2. Indargabetutako egintzei egindako aipamenak Erregelamendu honi egindakotzat joko dira.



*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

34. artikulua

**Xedapen iragankorrak**

33. artikuluan xedatutakoa betetzeko izango bada ere, Erregelamendu honetako 30. artikuluko 1., 2. eta 3. paragrafoari jarraiki elikagai-gehigarri baimenduen transferentzia egin arte, 94/35/EE, 94/36/EE eta 95/2/EE zuzentarauetako xedapen hauek aplikatzen jarraituko da:

- a) 94/35/EE Zuzentarauaren 2. artikuluko 1., 2. eta 4. paragrafoak, eta eranskina;
  - b) 94/36/EE zuzentarauaren 2. artikuluko 1., 2., 3., 4., 5., 6., 8., 9. eta 10. paragrafoak, eta I., II., III., IV. eta V. eranskinak;
  - c) 95/2/EE Zuzentarauaren 2. eta 4. artikulua eta I., II., III., IV., V. eta VI. eranskinak.
- c) idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, 95/2/EE Zuzentarauaren arabera E 1103 inbertasa eta E 1105 lizosima gehigarriak erabiltzeko emandako baimena baliogabetu egiten da, elikagai-entzimen Erkidegoko zerrenda aplikatzen hasten den egunetik hasita, 1332/2008/EE erregelamenduaren 17. artikuluari jarraiki.

35. artikulua

**Indarrean sartzea**

Erregelamendu hau Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik 20 eguneko epean sartuko da indarrean.

2010. urteko urtarrilaren 20tik aurrera aplikatuko da.

Hala ere, 4. artikuluko 2. paragrafoa 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko zaie III. eranskinako 2., 3. eta 5. zatiei. 23. artikuluko 4. paragrafoa 2011ko urtarrilaren 20tik aurrera aplikatuko da. 24. artikulua 2010eko uztailaren 20tik aurrera aplikatuko da. 31. artikulua 2009ko urtarrilaren 20tik aurrera aplikatuko da.

Erregelamendu honen elementu guztiak dira bete beharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean aplikatzekoak.

Estrasburgon, 2008ko abenduaren 16an.

*Europako Parlamentuaren izenean,*  
*Lehendakaria*  
H.-G. PÖTTERING

*Kontseiluaren izenean,*  
*Lehendakaria*  
B. LE MAIRE

## ANEXO I

Clases funcionales de aditivos alimentarios usados en alimentos y de aditivos alimentarios usados en aditivos alimentarios y enzimas alimentarias

1. «Edulcorantes»: sustancias que se emplean para dar un sabor dulce a los alimentos o en edulcorantes de mesa.
2. «Colorantes»: sustancias que dan color a un alimento o le devuelven su color original; pueden ser componentes naturales de los alimentos y sustancias naturales que normalmente no se consumen como alimentos en sí mismas ni se emplean como ingredientes característicos de los alimentos. Se considerarán colorantes en el sentido del presente Reglamento los preparados obtenidos a partir de alimentos y otros materiales comestibles naturales de base mediante una extracción física, química, o física y química, conducente a la separación de los pigmentos respecto de los componentes nutritivos o aromáticos.
3. «Conservadores»: sustancias que prolongan la vida útil de los alimentos protegiéndolos del deterioro causado por microorganismos o que protegen del crecimiento de microorganismos patógenos.
4. «Antioxidantes»: sustancias que prolongan la vida útil de los alimentos protegiéndolos del deterioro causado por la oxidación, como el enranciamiento de las grasas y los cambios de color.
5. «Soportes»: sustancias empleadas para disolver, diluir, dispersar o modificar físicamente de otra manera un aditivo alimentario, un aromatizante, una enzima alimentaria o un nutriente u otra sustancia añadidos a un alimento con fines nutricionales o fisiológicos sin alterar su función (y sin tener por sí mismas ningún efecto tecnológico), a fin de facilitar su manipulación, aplicación o uso.
6. «Acidulantes»: sustancias que incrementan la acidez de un producto alimenticio o le confieren un sabor ácido, o ambas cosas.
7. «Correctores de la acidez»: sustancias que alteran o controlan la acidez o alcalinidad de un producto alimenticio.
8. «Antiaglomerantes»: sustancias que reducen la tendencia de las partículas de un producto alimenticio a adherirse unas a otras.
9. «Antiespumantes»: sustancias que impiden o reducen la formación de espuma.
10. «Agentes de carga»: sustancias que aumentan el volumen de un producto alimenticio sin contribuir significativamente a su valor energético disponible.
11. «Emulgentes»: sustancias que hacen posible la formación o el mantenimiento de una mezcla homogénea de dos o más fases no miscibles, como el aceite y el agua, en un producto alimenticio.
12. «Sales de fundido»: sustancias que reordenan las proteínas contenidas en el queso de manera dispersa, con lo que producen la distribución homogénea de la grasa y otros componentes.
13. «Endurecedores»: sustancias que vuelven o mantienen los tejidos de frutas u hortalizas firmes o crujientes o actúan junto con agentes gelificantes para producir o reforzar un gel.
14. «Potenciadores del sabor»: sustancias que realzan el sabor o el aroma, o ambos, de un producto alimenticio.
15. «Espumantes»: sustancias que hacen posible formar una dispersión homogénea de una fase gaseosa en un producto alimenticio líquido o sólido.
16. «Gelificantes»: sustancias que dan textura a un producto alimenticio mediante la formación de un gel.
17. «Agentes de recubrimiento» (incluidos los lubricantes): sustancias que, cuando se aplican en la superficie exterior de un producto alimenticio, confieren a este un aspecto brillante o lo revisten con una capa protectora.
18. «Humectantes»: sustancias que impiden la desecación de los alimentos contrarrestando el efecto de una atmósfera con un grado bajo de humedad, o que favorecen la disolución de un polvo en un medio acuoso.

19. «Almidones modificados»: sustancias obtenidas por uno o más tratamientos químicos de almidones comestibles, que pueden haber sufrido un tratamiento físico o enzimático y ser diluidas o blanqueadas con ácidos o bases.
  20. «Gases de envasado»: gases, distintos del aire, introducidos en un recipiente antes o después de colocar en él un producto alimenticio, o mientras se coloca.
  21. «Gases propelentes»: gases diferentes del aire que expulsan un producto alimenticio de un recipiente.
  22. «Gasificantes»: sustancias o combinaciones de sustancias que liberan gas y, de esa manera, aumentan el volumen de una masa.
  23. «Secuestrantes»: sustancias que forman complejos químicos con iones metálicos.
  24. «Estabilizantes»: sustancias que posibilitan el mantenimiento del estado físico-químico de un producto alimenticio; incluyen las sustancias que permiten el mantenimiento de una dispersión homogénea de dos o más sustancias no miscibles en un producto alimenticio, las que estabilizan, retienen o intensifican el color de un producto alimenticio y las que incrementan la capacidad de enlace de los alimentos, en especial el entrecruzamiento de las proteínas, que permite unir trozos de alimento para formar un alimento reconstituido.
  25. «Espesantes»: sustancias que aumentan la viscosidad de un alimento.
  26. «Agentes de tratamiento de las harinas»: sustancias, distintas de los emulgentes, que se añaden a la harina o a la masa para mejorar su calidad de cocción.
-

---

*ANEXO II*

Lista comunitaria de aditivos alimentarios cuyo uso está autorizado en alimentos, y condiciones de uso.

---

*ANEXO III*

Lista comunitaria de aditivos alimentarios cuyo uso está autorizado en aditivos alimentarios, enzimas alimentarias y aromas alimentarios, y condiciones de uso.

Lista comunitaria de soportes en nutrientes y condiciones de uso.

Parte 1 Soportes en aditivos alimentarios

Parte 2 Aditivos alimentarios distintos de los soportes en aditivos alimentarios

Parte 3 Aditivos alimentarios, incluidos los soportes en enzimas alimentarias

Parte 4 Aditivos alimentarios, incluidos los soportes en aromas alimentarios

Parte 5 Soportes en nutrientes y otras sustancias añadidos a un alimento con fines nutricionales u otros fines fisiológicos

---

## ANEXO IV

**Alimentos tradicionales en los que determinados Estados miembros pueden seguir prohibiendo el uso de determinadas categorías de aditivos alimentarios**

Estado miembro	Alimentos	Categorías de aditivos cuya prohibición puede mantenerse
Alemania	Cerveza alemana tradicional (Bier nach deutschem Reinheitsgebot gebraut)	Todas, excepto los gases propelentes
Francia	Pan francés tradicional	Todas
Francia	Trufas francesas tradicionales en conserva	Todas
Francia	Caracoles franceses tradicionales en conserva	Todas
Francia	Conservas francesas tradicionales de ganso y de pato (confit)	Todas
Austria	Bergkäse austriaco tradicional	Todas, excepto los conservadores
Finlandia	Mämmi finlandés tradicional	Todas, excepto los conservadores
Suecia Finlandia	Jarabes suecos y finlandeses tradicionales de frutas	Colorantes
Dinamarca	Kødboller danesas tradicionales	Conservadores y colorantes
Dinamarca	Leverpostej danés tradicional	Conservadores (con excepción del ácido sórbico) y colorantes
España	Lomo embuchado español tradicional	Todas, excepto los conservadores y los antioxidantes
Italia	Mortadella italiana tradicional	Todas, excepto los conservadores, los antioxidantes, los agentes reguladores del pH, los potenciadores del sabor, los estabilizantes y los gases de envasado
Italia	Cotechino y zampone italianos tradicionales	Todas, excepto los conservadores, los antioxidantes, los agentes reguladores del pH, los potenciadores del sabor, los estabilizantes y los gases de envasado

## ANEXO V

**Lista de los colorantes alimentarios a que se refiere el artículo 24 para los que el etiquetado de alimentos incluirá información adicional**

Alimentos que contienen uno o varios de los siguientes colorantes alimentarios	Información
Amarillo anaranjado (E 110) (*)	«nombre o número E del/de los colorante(s); puede tener efectos negativos sobre la actividad y la atención de los niños.»
Amarillo de quinoleína (E 104) (*)	
Carmoisina (E 122) (*)	
Rojo allura AC (E 129) (*)	
Tartracina (E 102) (*)	
Rojo cochinilla A (E 124) (*)	

(\*) Con la excepción de alimentos en los que el/los colorante(s) se ha(n) utilizado para el marcado sanitario o de otro tipo de productos cárnicos o para estampar o colorear con fines decorativos cáscaras de huevo.